



DEBAko UDALA

2017SPLE0012
12. BILERA: OHIKOA 2017-12-21

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: hamabigarrena

Eguna: 2017/12/21

Hasiera-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 19:45

Onarpen-eguna: 2018/01/25

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BONGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M^a LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

UNAI LEKUBE ARANBERRI

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

Bertaratzeak eta irteerak:

Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/11/30).
2. Debako Udaleko 2. Kreditu aldaketa proposameana onartzeko proposamena.
3. Itziarko Auzo Udaleko 1º. Kreditu aldaketa proposameana onartzeko proposamena.
4. Debako Udala eta Elgoibar, Mutriku eta Mendaroko Udalen arteko hitzarmena. Gizarte-premia larrian daudenei eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei zerbitzua emateko eskualde mailan dauden bi harrera-pisutan lanak egiteko eta ordaintzeko.
5. Enplegua sustatzeko proiektuak gauzatzeko udalen arteko hitzarmena sinatzeko proposamena
6. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
7. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko aktak irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/11/30).

2017ko azaroaren 30ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamaika bilkuran direla.

2.- 02/2017 Kreditu aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean onartzeko proposamena.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamena.

5.- UDALA: 2. KREDITU ALDAKETA

Kredituen aldaketarako 2017ko 2. zenbakidun espedienteari buruz, eta, Tokiko Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legearen 158.2 artikulua eta Udal Araudia betez, Gastuen Aurrekontuan gordetako kopuruak nahikoa ez direnean eta hurrengo ekitaldirarte atzeratu ezin daitezkeen Udaleko ordainketak egiteko krediturik ez dagoenean, esandako aurrekontuak gehitu ahal izango dira edo kredituentzako ezohiko kredituak ematea adostu ahal izango da.

Kontuan izanda Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen 158.etik 162.era doazen 4 artikuluetan ezartzen dena eta Erakunde honen egungo beharrak ikusita, aldatu edo sortu behar diren kredituak, erabiliko diren kredituak adierazten diren igoera eta kenketen azterketan zehazten direnak dira.

Ogasun, Ondare eta Kontuen batzordeak aho batez erabaki du Debako Udaleko 2. kreditu aldaketa onartzea, 136.000€ko kopuruagatik, ondoren aipartzen diren gastuei dagozkienak:

Kapituloa	Gastuen egoera	Kopurua
2	Defentsa juridikoko gastuak. JM Abad	60.000€
6	Deba-Mutriku zubia	55.000€
2	Memoria historikoa	21.000€

Erabakia.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamaika bilkuran direla:



DEBAko UDALA

Lehenengo.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 02/2017 espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	Defentsa juridiko gastua. J.M. Abad	60.000,00
6	Deba-Mutriku zubia	55.000,00
2	Memoria historikoa	21.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		136.000,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3.- Itziarko Auzo Udaleko 01/2017 kreditu aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean onartzeko proposamena.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamena.

6.- AUZO UDALA: 1GO KREDITU ALDAKETA

Kredituen aldaketarako 2017ko 1. zenbakidun espedienteari buruz, eta, Tokiko Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legearen 158.2 artikulua eta Udal Araudia betez, Gastuen Aurrekontuan gordetako kopuruak nahikoa ez direnean eta hurrengo ekitaldirarte atzeratu ezin daitezkeen Udaleko ordainketak egiteko krediturik ez dagoenean, esandako aurrekontuak gehitu ahal izango dira edo kredituentzako ezohiko kredituak ematea adostu ahal izango da.

Kontuan izanda Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen 158.etik 162.era doazen 4 artikuluetan ezartzen dena eta Erakunde honen egungo beharrak ikusita, aldatu edo sortu behar diren kredituak, erabiliko diren kredituak adierazten diren igoera eta kenketen azterketan zehazten direnak dira.

Ogasun, Ondare eta Kontuen batzordeak aho batez erabaki du Auzo Udaleko 1go kreditu aldaketa onartzea, 44.528€ko kopuruagatik, ondoren aipartzen diren gastuei dagozkienak:



DEBAko UDALA

Kapituloa	Gastuen egoera	Kopurua
6	Sakonetako bidea	33.403€
6	Inbertsioak	11.125€

Erabakia.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamaika bilkuran direla:

Lehenengo.- Onartzea Itziarko Auzo Udaleko aurrekontuko kredituak aldatzeko 01/2017 espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako zehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Gehikuntzak</u>
6	Sakonetako bidea	33.403,00
6	Inbertsioak	11.125,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		44.528,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

4.- Debako Udala eta Elgoibar, Mutriku eta Mendaroko Udalen arteko hitzarmena. Gizarte-premia larrian daudenei eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei zerbitzua emateko eskualde mailan dauden bi harrera-pisutan lanak egiteko eta ordaintzeko.

Zinegotziek esku artean dutena Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasuna batzorde informatzailearen proposamena da.

Iritziak eta galde erantzunak

Marilu Albizu zinegotziak azaldu du, Eusko Jaurlaritzako zerbitzuen zorroaren eremuan finkatzen direla eskualde mailan eman beharreko zerbitzuak. Horren ildotik, Elgoibarko Udalak etxebizitza



DEBAko UDALA

bi eskaini ditu eta horien egokitzapen lanen ordainketa hitzarmena sinatzen duten Udalen artean egingo da, bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera.

Jose Luis Albizu zinegotziak proposatu du hitzarmenaren testuan “violencia doméstica” ordez “violencia machista” erabiltzea, egokiagozat jotzen baita.

Marilu Albizuk erantzun du, begiratuko dela zeintzuk kasutan kontzeptu hori erabili den Legearen testua transkribatuz, baina gainerako kasuetan aldatu egingo dela.

Erabakia.

Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasuna batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamaika kideetatik hamabi bilkuran direla:

Lehenengo.- Debako Udala eta Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mutriku eta Mendaroko Udalen arteko hitzarmena sinatzea, *gizarte-premia larrian daudenei eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei zerbitzua emateko* eskualde mailan dauden bi etxebizitza tutelatueta lanak egiteko eta ordaintzeko eta erabilera amankomuna egiteko.

Bigarrena.- 11.471,36€ euroko gastua baimentzea eta ordaintzea Elgoibarkoko Udalak obra ziurtagiriak eta gastua egin izanaren agiriak aurkezten ditutenean.

Hirugarrena.- Alkateari ahalmena ematea Udalaren izenean hitzarmena sinatzeko.

5.-Enplegua sustatzeko proiektuak gauzatzeko, udalen arteko kudeaketa-gomendioaren hitzarmena sinatzeko proposamena.

Aurrekariak

Enplegua eta Tokiko Garapena sustatzeko, Lanbidek laguntzak kaleratu ditu 2017rako. Diru-laguntzak eskualde mailan eskatu dira eta horren kudeaketaz Elgoibarko Udala arduratzen da.

Harremanak arautzeko edo kudeaketa-gomendio hori arautzeko hitzarmen bat sinatu behar da Elgoibar, Eibar, Soraluze, Deba, Mendaro eta Mutrikuko udalen artean.



DEBAko UDALA

Erabakia.

Hitzarmenaren berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia legezko hamahiru kideetatik hamaika bilkuran direla, horretarako aintzat hartu da Gizarte Zenbitzuen batzorde informatzailearen proposamena:

Lehenengo.- Debabarreneko Lurralde eremuan, Enplegua eta Tokiko Garapena sustatzeko proiektuak (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen dituenek) gauzatzeko Elgoibar, Eibar, Soraluze, Mendaro, Deba eta Mutrikuko Udalen artean egiten den kudeaketa-gomendioaren 2017ko hitzarmena onartzea.

Bigarren.- Hitzarmena sinatzeko ahalmena, alkateari ematea.

6.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

157	2017/11/27	Udal erroldan baja ematea.	
158	2017/11/28	Eguneko zentroko langileen oporrak ordezkatzeko langile baten kontratazioa azaroaren 29tik urtarrilaren 2ra.	
159	2017/12/04	Agirre Jauregiko bi altzari zaharberritzeko kontratua esleitzea	2017SCOU0019
160	2017/12/04	Ipuin kontaketarako gastua baimentzea.	
161	2017/12/04	Toka jolasarentzat itxitura egiteko kontratua esleitzea.	2017UOME0043
162	2017/12/04	Zubia asfaltatzeko kontratua esleitzea.	2016SCOU0011
163	2017/12/04	“Debako euskararen historia soziala” ikusentzunezkoa egiteko gastua baimentzea.	
164	2017/12/04	“Debako euskararen historia soziala” maketazioa egiteko gastua baimentzea.	
165	2017/12/12	Ifar kaleko Luzaro ikastolako beheko solairuko patioan dagoen jolasa eta horren segurtasun lurra aldatzeko diru-laguntza eskatzea.	
166	2017/12/12	Ifar kaleko Luzaro ikastolako 2. solairuko patioan jolasen eremuan segurtasuna ipintzeko diru-laguntza eskatzea.	
167	2017/12/12	Ifar kaleko Luzaro ikastolako arkupeko estalkia konpontzeko diru-laguntza eskatzea.	

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.



DEBAko UDALA

7.- Eskariak eta galderak.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2017ko abenduaren 21ean

